## BASQUEPROREN ELKARGO PROFESIONALEN GARAPEN JASANGARRIRAKO 17 HELBURUEN ALDEKO MANIFESTUA

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda izeneko hitzarmena 2015ean sinatu zuten Nazio Batuen herrialde kideetako estatuburuek eta gobernuburuek. Globalizazioak gizarte, ekonomia eta ingurumen arloan ekarritako erronkei aurre egiteko nazioarteko konpromisoa da. Gainera, garapen jasangarriaren 17 helburuekin eta horiek garatzen dituzten 169 helburuekin batera, aukera paregabea osatzen du mundu osoan eraldaketa sakonaren oinarriak ezartzeko, gizarte atal guztiak aintzat hartuko dituzten garapenerako eredu jasangarrietarantz zuzentzeari begira.

Agenda 2030 eta GJHak garapen jasangarriaren hiru zutabeetan oinarritzen dira: garapen ekonomikoa, gizarte egokitasuna eta ingurumenaren babesa. Herrialde garatuetan eta garabidean daudenetan aplikatzen dira neurri berean eta, herrialde bakoitzaren barruko maila guztietako gobernuetan (zentrala, autonomikoa eta udala) erantzukizun berriak sortzeaz gain, gizarte zibilaren gainerako eragileen, herri erakundeen, enpresen, sindikatuen, unibertsitateen eta, bereziki, elkargo profesionalen jardueran ere eragina dute.

Orain arte, 2030 Agendarako Goi Ordezkaritza eratzeaz gain, Gobernu zentralak 2018ko ekainean "2030 Agenda Ezartzeko Ekintza Plana" onartu zuen eta "Garapen Jasangarrirako Espainiako Estrategia" prestatzeari ekin dio.

Era berean, Euskadin, **Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda** onartu zuen 2018an egindako Gobernu Kontseiluan, 2016-2020 aldirako. Ordutik, Eusko Jaurlaritzan eta haren sailetan ez ezik, Foru Aldundietan, Eudelen eta Udalsarea 2030en lankidetzan ari dira eginkizun horretan.

## MANIFIESTO DE LOS COLEGIOS PROFESIONALES DE BASQUEPRO ELKARGOAK EN FAVOR DE LOS 17 ODS

La Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible fue suscrita en 2015 por los jefes de Estado y de Gobierno de los países miembros de Naciones Unidas. Representa el compromiso internacional para hacer frente a los retos sociales, económicos y medioambientales de la globalización, y junto a sus 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y las 169 metas que los desarrollan, constituye una oportunidad única para establecer las bases de una trasformación profunda y global que conduzca hacia modelos de desarrollo incluyentes y sostenibles.

La Agenda 2030 y los ODS se basan en los tres pilares de desarrollo sostenible, que son el desarrollo económico, la equidad social y la protección del medio ambiente. Se aplican por igual a países desarrollados y en vías de desarrollo, y a nivel interno no solo generan responsabilidades de los Gobiernos central, autonómicos y municipales, sino que implican igualmente la actuación del resto de actores de la sociedad civil, instituciones, empresas, sindicatos, Universidades y en particular de los Colegios profesionales.

Hasta el momento, el Gobierno ha constituido el Alto Comisionado para la Agenda 2030, ha aprobado en junio de 2018 el “Plan de Acción para la Implementación de la Agenda 2030”, y ha iniciado la elaboración de una “Estrategia Española de Desarrollo Sostenible”.

Igualmente, en Euskadi, el Gobierno Vasco, aprobó en 2018 en Consejo de Gobierno la **Agenda Euskadi Basque Country 2030**, con un ámbito temporal 2016-2020. Desde entonces, se está trabajando no solo a nivel de Gobierno Vasco y sus Departamentos, sino, en colaboración con Diputaciones, Eudel y la Red Vasca de Municipios Sostenibles, Udalsarea 2030.

Bestalde, ***BasquePRO Elkargoak*** Profesionaltasunaren aldeko ***BasquePROren*** proiektuan elkarlanean dauden elkargo profesionalen sare bat da eta, bertan, 50.000 profesional inguruko kolektiboa ordezkatuta dago. Sare hori, besteak beste, 2030 agendarako hurbilketa bultzatzen ari da Euskadiko elkargo profesionalen artean. Horrekin, kolektibo profesionalen eginbeharra eta harremana zehaztu eta bultzatu nahi dituzte, Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez.

Helburu horrekin, **BasquePRO Elkargoak** ekimenak **EUSKADI 2030 GUNEAren** Talde pilotuan parte hartu du, haren bidez, elkargo profesionalen ahotsa ekarrita. Gainera, aldi berean, Sarekide diren elkargoetako batzuei taldearen aurrerapenen berri eman die. Lankidetza horren ondorioz, Agenda 2030 ezartzeko moduari eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen laguntzeari buruzko **Euskal Erakundeentzako Gida Praktikoa** egin da.

**BASQUEPRO ELKARGOAK GJHEKIN DUEN KONPROMISOA**

Hori guztia ikusita, BasquePRO Elkargoak elkargo profesionalen sareak:

- Berresten du elkargo profesionalen ekarpenek modu handian eratzen dituztela gure errealitate soziala eta gure ingurunea, eta oinarrizko elementu bihurtzen direla garapen jasangarria lortzeko.
- Aitortzen du lanbide-elkargoek esperientzia transmititzeko ibilgailu gisa duten gaitasuna, eta era guztietako erronkak identifikatzeko, ebaluatzeko eta horiei erantzun integratua emateko duten gaitasuna azpimarratzen du, ideiak eta proiektuak gauzatuz eta pertsonen portaerak aldatuz, haien bizi-kalitatea hobetzeko.
- Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan aipatutako Garapen Jasangarrirako

Por su parte, ***BasquePRO Elkargoak*** es una red de Colegios Profesionales que colaboran dentro del proyecto de Profesionalidad de ***BasquePRO*** y representan conjuntamente a un colectivo de cerca de 50.000 personas profesionales. Esta red está impulsando entre los Colegios profesionales de Euskadi, junto a otros proyectos, la aproximación a la Agenda 2030 con el fin de definir e impulsar el rol de los diferentes colectivos profesionales y su relación con los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

Con este objetivo, ***BasquePRO Elkargoak*** ha participado en el Grupo piloto **EUSKADI 2030 GUNEA**, aportando al mismo la voz de los Colegios profesionales y al mismo tiempo dando a conocer a varios de los Colegios que forman parte de la Red los avances del grupo. Esta colaboración ha culminado en la elaboración de una **Guía Práctica para Organizaciones Vascas** sobre cómo implementar la Agenda 2030 y contribuir a los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

**COMPROMISO DE BASQUEPRO ELKARGOAK CON LOS ODS**

En vista de todo lo anterior, la red de Colegios Profesionales de BasquePRO Elkargoak:

- Reafirma que las aportaciones de los Colegios Profesionales configuran en gran forma nuestra realidad social y nuestro entorno y se constituyen en elemento básico para alcanzar un desarrollo sostenible.
- Reconoce la capacidad de los Colegios Profesionales como vehículos transmisores de la experiencia y subraya su capacidad para identificar, evaluar y dar respuesta de manera integrada a todo tipo de desafíos, materializando las ideas y proyectos, y modificando los comportamientos de las personas para mejorar su calidad de vida.
- Asume el papel relevante de los ODS enunciados en la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible

GJHen eginkizun garrantzitsua, helburu horien dimentsio transzendentea eta lanbide-elkargoek helburu horiek lortzeko duten gaitasuna bere gain hartzen ditu.

- Era berean, uste du GJHak gure jardueran eta estrategian ez sartzeak dakartzan arriskuak askoz ere handiagoak direla eskaintzen dizkiguten aukerak baino.
- Lanbide-elkargoen botere eraldatzailea, ekitatean, inklusioan eta baliabideen iraunkortasunean oinarritutako mundua lortzeko beharrezkoak diren aldaketei modu erabakigarrian laguntzeko.
- Beharrezkoa den lidergoa erabiltzeko eta tokian tokiko arazoak eta arazo globalak konpontzen gure ezagutzarekin eta ahaleginarekin laguntzeko gure erabakia berretsi du, arreta berezia jarriz gure kolektiboa eraginkorragoa izan daitekeen eta gizartean inpaktu positibo handiagoa sor dezaketen GJHetan.

Ondorioz, BasquePro Elkargoak osatzen duten elkargo profesionalek konpromiso hauek hartu genituen:

- 2030 Agendan adierazitako Garapen Jasangarriko Helburuak bultzatzen dituzten balioak sinatu eta babesten ditugu.
- GJHak hartzea sustatuko dugu, gure jarduera profesional guztiak gauzatzean, eta erreferentzia-esparru gisa erakundeen eta gainerako gizarte-eragileen aurrean, gure eskumenen esparruan.
- Dibulgazio-ekintzak eta prestakuntza-programak lehenetsiko ditugu, jarduera arduratsuaren kultura sustatzen laguntzeko, ingurumenaren aldetik jasangarriak eta gizartearen aldetik inklusiboak direnak.

de Naciones Unidas, la dimensión trascendente de dichos Objetivos y la capacidad de los Colegios Profesionales como agentes activos para su consecución.

- Considera también que los riesgos que implica la no incorporación de los ODS en nuestra actividad y estrategia resultan desproporcionadamente superiores a las oportunidades que por el contrario nos ofrecen.
- Afirma el poder transformador de los Colegios Profesionales para contribuir decisivamente a los cambios necesarios para conseguir un mundo basado en la equidad, la inclusión y la sostenibilidad de los recursos.
- Reitera nuestra determinación para ejercer el liderazgo necesario y contribuir con nuestro conocimiento y esfuerzo a la resolución de los problemas locales y globales, con énfasis especial en aquellos ODS en los que nuestro colectivo puede resultar más eficiente, y generar un mayor impacto positivo en la sociedad.

En consecuencia, los Colegios Profesionales que forman parte de BasquePro Elkargoak adoptamos los siguientes compromisos:

- Suscribimos y apoyamos los valores que alientan los Objetivos de Desarrollo Sostenible enunciados en la Agenda 2030.
- Promoveremos la adopción de los ODS en el ejercicio de todas nuestras actividades profesionales, y como marco de referencia ante las instituciones y resto de agentes sociales en nuestro ámbito de competencias.
- Priorizaremos acciones de divulgación y programas formativos que contribuyan a fomentar una cultura de actuación responsable, y que resulten medioambientalmente sostenibles y socialmente inclusivos.

- Administrazioei eta gure erakunde-, enpresa- eta pertsona-harremanen sareari eskatuko diegu GIHen kultura pixkanaka txerta dezaten.
- Diziplina anitzeko aliantzak eta sinergiak bultzatuko ditugu beste sektore eta eragile batzuekin, bai eta gainerako elkargo eta elkarte profesionalekin ere, GJHen hedapena eta lorpena sustatu, bultzatu eta biderkatzeko.
- Lankidetza-hitzarmenak garatuko ditugu gure eskumenen esparruan GJHen bidez lehenesten diren balioak, jarduera-irizpideak eta jasangarritasun-kultura sustatzeko ilusioak eta interesa partekatzen dituzten erakunde publiko eta pribatu guztiekin.
- Aktiboki parte hartuko dugu, erakunde publiko eta pribatuekin, GKEekin eta enpresekin batera, garapenerako nazioarteko lankidetza eta boluntariotza sustatzeko jarduera bateratu eta solidarioak garatzeko.

Bilbo, 2021ko martxoa

- Instaremos a las Administraciones y a nuestra red de contactos institucionales, empresariales y personales, para que incorporen progresivamente la cultura de los ODS.
- Apoyaremos todo tipo de alianzas multidisciplinares y de sinergias con otros sectores y agentes, y con el resto de Colegios y Asociaciones profesionales que promuevan, potencien y multipliquen la difusión y la consecución de los ODS.
- Desarrollaremos convenios de colaboración con cuantos organismos públicos y privados compartan ilusiones e interés en promover, en el ámbito de nuestras competencias, el fomento de los valores, los criterios de actuación y la cultura de sostenibilidad que se priorizan a través de los ODS.
- Participaremos activamente junto a las Instituciones y Organizaciones públicas y privadas, ONGs y empresas para desarrollar actuaciones conjuntas y solidarias, orientadas a fomentar el voluntariado y la cooperación internacional para el desarrollo.

Bilbao, marzo de 2021